

NERABEENTZAKO AISIALDI JARDUERETAN
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO
**EUSLE DINAMIKAK UDALEKUETARA
EGOKITZEKO PROPOSAMENA**

AURKIBIDEA

01. Zer dira Eusle dinamikak? Zer egin da udalekuetan?	5
02. Zer hartu kontuan jarduerak erabiltzerakoan	7
03. Eusle jarduera I: "Piraten altxorra"	9
04. Eusle jarduera II: "Surflari profesionalak"	13
05. Eusle jarduera III: "Erosi eta saldu"	16
06. Eusle jarduera IV: "Twiteroak"	18
07. Eusle jarduera V: "Itsua eta itsu-laguna"	22
08. Eusleen jarduera VI: "Aslaak"	25
09. Eusleen jarduera VII: "Gaupaseroak"	28
10. ERANSKINAK	30
10.1 ERANSKINA I – PIRATEN ALTXORRA	31
10.2 ERANSKINA II – SURFLARI PROFESIONALAK	37
10.3 ERANSKINA III – EROSI eta SALDU	40
10.4 ERANSKINA IV – TWITEROAK	43
10.5 ERANSKINA V – ITSUA eta ITSU-LAGUNA	48
10.6 ERANSKINA VI – AASLAAK	51
10.7 ERANSKINA VII – GAUPASEROAK	52

MINGAINA DANTZAN UDALEKUAK 2017

Ondorengo orrietan nerabeekin egiteko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko lagungarriak izan daitezkeen baliabide batzuk aurkezten dira.

Mingaina Dantzari Udalekuak lehenengo aldiz 2017an egin dira. Eusko Jaurlaritzak antolatu ditu eta Mundakan izan dira. 13-14 urteko 30 nerabek parte hartu dute. Helburu nagusietako bat euskararen erabilera sustatzeko tresna eta baliabideak garatzea izan da.

Hala, Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik bide eta ezaugarri ezberdinetako jarduerak eta proposamenak landu dira; horietako bide bat Eusle dinamikak udalekuetara egokitzea izan da.

Horiek jasotzen dira dokumentu honetan. Ez da gida bat, soilik jarduera batzuen bilduma bat da. Landutakoa nerabeen bestelako jardueretako antolatzaile eta hezitzaileen esku jartzea erabaki da, horietan ere erabilgarri izan daitezkeelakoan.

MINGAINA DANTZAN UDALEKUAK 2017

Ebete Hizkuntza Zerbitzuak:

· Itziar Larzabal Bengoetxea, Arrate Gisasola Izeta eta Iñaki Eizmendi Arsuaga.

Ttakun Kultur Elkartea:

· Iñaki Aristondo Aparicio eta Maddi Osoro Sistiaga.

Hezitzaile Taldea:


· Koordinatzailea: Leticia Sanchez Manzano.

· Hezitzaileak: Ainara Garcia Regalado, Kepa Gerrickagoitia Sarasua eta Aitzol Saizar Viaña.



01.

**ZER DIRA EUSLE
DINAMIKAK? ZER EGIN
DA UDALEKUETAN?**



01.

ZER DIRA EUSLE DINAMIKAK? ZER EGIN DA UDALEKUETAN?

Eusleak dira talde baten barruan euskara mantentzeko prest dauden eta horretarako konpromisoa hartzen duten kideak. Hau da: euskarari eutsiko diotenak besteek erdaraz egiten badute ere.

Eusle dinamiketan, eusle batzuk egoteaz gain, gainontzekoek hauek hartutako arduraren errespetatuko dutela, eta are gehiago, laguntzeko ere prest egon daitezkeela adierazten dute. Hau da, kide batzuk eusleak badira eta besteek hori errespetatu eta babesten badute, errazagoa da talde horretan euskararen erabilera indartzea edo finkatzea.

Mingaina Dantzan Udalekuen helburu nagusienetako bat nerabeek denbora tarte luzeetan beraien artean euskara mantentzea zen. Horri begira, euskara mantentzeko ahalegin kontzientea egitea ere bilatu da eta eusleen planteamendua interesgarria dela baloratu da.


Baina udalekuen ezaugarrietara egokitzeko ahalegina ere egin da: aisialdiko jarduerak bat da, ondo pasa behar dute, eta eusleen planteamenduak izaera ludiko hori barnean izan behar du. Are gehiago, udalekuen dinamikara ere egokitu beharra ikusi da. Hau da: bereziki espazio irekiak eta egoera informalak nagusi izango direla kontuan hartu da.

Horri begira, ondoko ezaugarri hauen arabera antolatu dira jarduerak:

- Tarte bat edo batzuk bilatu dira eusleen erronka proposatzeko: egun osokoa izatea gehiegizkoa da intentsitatea mantentzeko.
- Tarte nahiko informaletarako proposamenak izan dira: nagusiki beraien kabuz egon diren eta hezitzaileen eragina nahiko mugatua den egoeretarako prestatu dira.
- Guztiei proposatu zaie eusle izatea, baina ez da inor derrigortu. Hori bai, besteen jarrera errespetatzea eta laguntzeko jarrera izatea eskatu zaie.
- Eusleek euskara mantendu behar dutela modu esplizituan azaldu da, baina pertsonaia baten ezaugarrien barruan sartu da hori; pertsonaia horrek zeregin bat du eta ezaugarri batzuk ditu, eta horietako bat euskara mantentzea da. Hau da: rol jolas modukoak izan dira.

02.

ZER HARTU KONTUAN JARDUERAK ERABILTZERAKOAN



02.

ZER HARTU KONTUAN JARDUERAK ERABILTZERAKOAN

Jarduera lagungarriak dira

Jarduera hauek nerabeen jardueretan euskararen erabilera indartzen edo mantentzen lagundu dezakete, baina proposatu aurretik ondo aztertu zer eta nola proposatzea komeni den:

- Euskaraz egiteko ohitura oso gutxi dutenen kasuan, tarte nahiko laburrak eta egoera nahiko babestuetan izan beharko du (hezitzaileon eragina nahiko handia izan daitekeenean).
- Euskara egiteko ohitura duten edo nahiko erraz egiten dutenen kasuan, tarte luzeagoak eta informagoak izan daitezke.

Hezitzaile berritsuak izan

Hezitzaile berritsuaren jarrera ezinbestekoa da: dinamikak aproposak izan daitezkeen arren ziurrenik zailtasunak ere agertuko dira, eta zailtasun horien aurrean nerabeei laguntzeko modu eraginkorrena hezitzaile berritsu moduan aritzea da. Hau da: hezitzaileok tarte horretan oso jarrera aktiboa izatea, eta elkarriketa asko sortzea edo bideratzea.

Parte hartzaileen eta jardueraren ezaugarrietara egokitu

Modu honetako jarduerak sortzea edo hemen proposatzen diren erara egokitzea ez da zaila. Garrantzitsua parte hartzaileen eta jardueraren ezaugarrietara ondo egokitzea da.

Horretan, adibidez, Mingaina Dantzan Udalekuetan ez da nahi bezain ondo asmatu: jardueretako batzuk gustatu zaizkie nerabeei eta gustura parte hartu dute, baina eusle rola ondo betetzea kosta egin zaie batez ere jolas moduan ikusi dutelako proposamena eta ez eusle dinamika moduan. Jarduerak egokiak direla ikusten dugu eta zertxobait moldatuta nerabeen (baita haurren) jarduera ezberdinetarako balio dezaketela, baina ondo egokitu behar dira erakargarriak eta eraginkorrak izan daitezen.

Programazioa txertatu


Jardueraren bat erabili nahi baduzue, programazioan ondo txertatzea garrantzitsua da:

- Noiz egingo da?
- Nola aurkeztuko zaie?
- Nola egingo da jarraipena eta balorazioa?

Garrantzitsua da programazioan ondo txertatzea nerabeei proposamena erakargarria egiteko, eta euskararen erabilera begira hezitzaileok hartu beharreko jokabidea argi edukitzeko.

03.

EUSLE JARDUERA I: “PIRATEN ALTXORRA”



03.

EUSLE JARDUERA I: “PIRATEN ALTXORRA”

Erronka

- Piraten altxorra! Hiru zenbaki dituen kandadu batekin itxiko dugu kutxa bat.
- Hiru zenbaki horiek lortu behar dituzte.
- Eguneko hiru tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean zenbaki bat lortzea izango dute helburu. Hiru tarteak hauek:
 - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo ekintzak irauten duen bitartean.
 - › Bazkalosteko tartean.
 - › Arratsaldeko tarte batean.

Azalpena

- Bost eusleek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute.
- Hezitzaileetako batek ere eusleen moduan jokatu beharko du.
- Tarte bakoitzaren amaiera aldera, bostak bilduko dira hezitzaile horrekin, eta galdera batzuk egingo dizkie.
- Galderen ondoren hezitzaileak asmakizun bat edo froga bat aurkeztuko die.
- Hori gainditzen dutenean zenbakia lortuko dute.
- Gaubelan kutxa ireki beharko dute.

Hasiera

- Leku nabarmen batean kutxa bat jarriko dugu kandadu batez lotuta. Hiru zenbakidun kandadu bat.
- Jaikitzen diren momentutik, ikusi egin behar dute. Oso bistan egon behar du.
- Kutxaren inguruan (baita aterpetxean zehar ere), kartelak edo girotzeko gauzak jar daitezke: Lortu altxorra!

Istoria

- Hezitzaileek kontatuko dute: Hemen daukazue Mundakako altxorra. Orain dela urte asko ekarri zuten pirata batzuek Pazifikoko irla batetik, baina inork ez du lortu kutxa irekitzea. Herriko biztanleek ez dakite kutxarekin zer egin eta guri ekarri digute. Irekitzen badugu, altxorra guretzat omen da.

- Kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue.
- Zenbaki horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko “piratak”.
- Baina garai horretako piraten moduan jokatu behar duzue; bestela, ez duzue lortuko.
- Gure piratek hau egiten dute:
 - › Euskaraz hitz egiten dute. Bizkaieraz. Ez dakite gaztelaniaz, ez frantsesez, ez ingelesez. Beti euskaraz egiten dute, baina bizkaieraz.
 - › Esaldi laburrak erabiltzen dituzte eta bizkaierako hitz hauek tartekatzen dituzte:
 - Zelan? Zeinekin? ...
 - Jata, jatzue, jako, zaoz, nao...
 - Berba, mahaixa, hankia, nagusixa, familixia...
 - ...

Gustuko bizkaierazko bost berba edo esaldi besoan tatuatu eta horiek erabiltzera animatzen zaituztegu!!

- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
 - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
 - › Bazkalostean.
 - › Arratsaldeko tartean.
- Tarte horien amaieran, pirata nagusiak (hezitzaileetako batek) elkartu egingo zaituzte bost piratak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita froga bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badoa, iluntzerako altxorra lortuko duzue.

Girozte lana

- Eusleek pirata izena jarriko diote beren buruari.
- Zapi bat eta partxe bat emango dizkiegu. Nahi duten moduan eraman ditzakete.
- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dugu eta xaxatzen ibili: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte? “Bai” eta “ez” hitzekin hasten dira? Kojoka dabilta? ...

Eusleen aukeraketa, nortzuk izango dira gaurko piratak?

- Gosariko orduan dinamika azalduko diegu eta istorioa kontatuko diegu.
- Eusle izateko prest nortzuk dauden galdetuko diegu.
- Bost aukeratu ditugu (eta besteei hurrengo egunetan izateko aukera dutela esango diegu).
- Eusle ez direnei laguntzeko jarrera izateko eskatuko diegu. Piratak animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzeko badute, askoz hobe.

**Oharra: guztiek izan behar dute eusle izateko aukera, eta beraz, egunez egun eusleak aldatu. Batzuk ez badira inoiz animatzen, egunean zehar beraiekin hitz egin eta hurrengo egunean animatu daitezten gonbidatu.*

Egunean zehar balorazioak eta frogak

- Tarte bakoitzaren amaieran, hezitzaile bat bost eusleekin bilduko da eta galdera batzuk egingo dizkie:
 - › Zer moduz aritu dira? Kojoka ibili dira? Euskalkiko hitzak erabili dituzte? “Bai” eta “ez” hitzekin aritu dira? Denbora guztian euskaraz egin dute?
 - › Garrantzia berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabe nagusia hori dela.
- Ondoren, zenbakia lortzeko frogak bat gainditu beharko dute: asmakizun bat erantzutea, matematiketako ariketa bat egitea, kirol frogak bat edo dena delako. Zerbait nahiko azkar egin daitekeena.
- Zenbakia emango diegu, eta horretaz gain:
 - › Hurrengo tarteak noiz izango den gogorarazi.
 - › Rola mantentzera gonbidatu beste tarteetan ere.
- Hirugarren tartearen ondoren, euskara mantentzeari buruz galdetuko zaie batez ere:
 - › Erraz mantendu al dute? Tarteren batean zaila egin zaie? Zailtasunak izan badituzte, hurrengo egunetakoei zer proposatu horiek gainditu ditzaten?

Materiala


- Altxorra
- partxeak (6)
- litxarreriak
- kandadua (3 zenbakiduna)

Bukaeran

Gaubelan hiru zenbakiak izango dituztenez, altxorra irekiko dute. Zer egongo da barruan? Litxarreriak!!!

04.

EUSLE JARDUERA II: “SURFLARI PROFESIONALAK”



04.

EUSLE JARDUERA II: “SURFLARI PROFESIONALAK”

Erronka

- Surf lari profesionalen agiria lortu behar dute. Denek profesionalak izan nahi dute eta famatuak, eta horretarako agiri bat behar dute.
- Surf saioa hasi baino ordubete lehenagotik eta uretatik atera bitarte irauango du.

Azalpena

- Bost eusleek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute.
- Hezitzaileetako batek ere eusleen moduan jokatu beharko du.
- Tartearen amaiera aldera, bostak bilduko dira hezitzaile horrekin, eta galdera batzuk egingo dizkie.
- Behar bezala jokatu badute, surfeko irakasleak taldeko kide guztiei surf lari profesionalen agiria emango die.

Istoria

Euskal Herrian surf lari profesional asko daude. Mundu mailan ezagunak direnak. (Acero anaiak, Aritz Aranburu, Miriam Imaz, Ariane Otxoa...).

- Badakizue gaur surf egitera joango garela.
- Zuek denok eta hezitzaileok surf lari profesionalak izan nahi dugu. Berdin zaigu egia den edo ez. Gaur horrela da. Hori lortu behar dugu. Horretarako zuetako bost eta hezitzaileetako bat surf lari profesionalak izango zarete surf ekintza hasi baino ordu bete lehenago eta uretatik irten bitarte. Zuek ongi eginez gero denok izan gaitzke surf lari profesionalak.
- Euskal Herriko surf lari profesional izatera iristeko urrats batzuk eman behar dira:
 - › Hitz egiterakoan “guayak” dira. Beraientzat guay izatea beti euskaraz egitea da baina ingelesezko hitz asko sartuz. Gaztelaniaz ez dute ezer egiten.
 - › Irudi egokia lortu ahal izateko prozesu bat jarraitu dute. Zuek ere prozesu bera jarraituko duzue. Osagarri batzuk emango dizkizuegu eta guztiak jantzita ibili behar duzue. 15 minuturo bat kendu ahal izango duzue, nahi duzuen. (Pelukak, betaurreko xelebreak, gonak eta abar emango dizkiegu. Bakoitzari 6 elementu).
 - › Hitz egiterakoan eskuekin eta besoekin keinu asko egin behar dituzue.
- Dena ondo badoa, surf saioa amaitzerako itxura bikaina izango duzue eta profesionalak izango zarete!

Giroitze lana

- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dugu eta xaxatzen ibili: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte? Hitz guaiekin ari dira? Ingelesa eta euskara tartekatzen dute? ...

Eusleen aukeraketa, nortzuk izango dira gaurko surflariak?

- Gosariko orduan dinamika azalduko diegu eta istorioa kontatuko diegu.
- Eusle izateko prest nor dauden galdetuko diegu.
- Bost aukeratu ditugu (eta besteei hurrengo egunetan izateko aukera dutela esango diegu).
- Surf ekintza hasi baino ordu bete lehenago materiala banatuko dizuegu materiala. Mozorroa!
- Eusle ez direnei laguntzeko jarrera izateko eskatuko diegu. Animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzaren badute, askoz hobe.

Egunean zehar balorazioak eta frogak


- Tartearen amaieran, hezitzaile bat bost eusleekin bilduko da eta galdera batzuk egingo dizkie:
 - › Zer moduz aritu dira? Itxura ona lortu dute? Keinu asko egin dituzte esku eta besoekin? Euskaraz aritu dira eta ingelesezko hitzak sartuz?
 - › Garrantzia berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabe nagusia hori dela.
- Ondoren, titulua banatzeko ekitaldia egingo da surf eskolan bertan. Irakasleari eskatuko zaio diploma horiek banatzeko.

Materiala

- Hawaiar itxura emango dien objektuak, adibidez:
 - › Pelukak (6)
 - › Betaurrekoak (6)
 - › Koilare hawaiarra (6)
 - › Gona hawaiarra (6)
 - › Besoetako mallak-tatuajeak (6)
 - › Pultserak (6)
- Diplomak (aurretik bakoitzaren izena idatzi)

05.

EUSLE JARDUERA III: “EROSI ETA SALDU”



05.

EUSLE JARDUERA III: “EROSI ETA SALDU”

- Pultsera erosiko dizut.
- Zenbat ordainduko didazu?

Erronka

- Egun osoan zehar pultsera (edo koilare) bat saldu eta erosten ibiliko gara.
- Egunaren amaieran pultsera horrek asko balio behar du.

Azalpena


- Egun osoan zehar 4 eusle ariko dira: gosaritik afalostera.
- Baina denbora guztian ez dira eusle berdinak izango: erreleboak eman behar dituzte. Ordubeteko txandak izango dira gutxi gora behera.
- Hezitzaileek ere parte hartuko dute dinamikan, baina txanda bakoitzean bakarra aritu daiteke (edo bat ere ez).

Istoria

- Mundakara pultserak iritsi dira. Bereziak. Lauk izan ezik, beste guztiok izango ditugu. Pultsera honekin ibiltzeak zoriontsu egiten zaitu. Ez dago hori baino gauza hobirik. Pultsera ez duzuenok lortu egin nahi duzue, eta erosi dezakezue.
- Guztiok duzue dirua, eta horretarako erabil dezakezue. Bakoitzari billete bat emango diogu (fotokopiatuta, noski).
- Baina horretarako erosle aberatsek bezala jokatu behar duzue:
 - › Ezin duzue ordubete pasa baino lehenago erosi.
 - › Tarte horretan jauntxoek hitz egiten duten moduan hitz egin behar duzue: euskara batuan eta hitz ponpoxo edo azentu pijoa erabiliz.
- Ordubete pasatzen denean, nahi duzuenarengana hurbildu zaitezketen eta dirua eskaini:
 - › Pultsera erosiko nizuke.
 - › Zenbat ordainduko didazu?
 - › Daukazun diru guztia eman behar diozu.
 - › Besteak ezin du ezezkoa esan. Hartu egin behar du dirua.
 - › Une horretatik aurrera, bera bihurtzen da erosle.
- ...
 - › Ordu betean ezin du erosketari egin, erosketari egiterakoan diru guztia eman behar du...

06.

EUSLE JARDUERA IV: “TWITEROAK”



06.

EUSLE JARDUERA IV: “TWITEROAK”

Erronka

- Egunean zehar hiru twit lortu behar dituzte eta amaierako albisteak. Albisteak hurrengo egunari begirako informazioa izango da.
 - › Twitak pistak izango dira eta 3 twitak lortuta albisteak errazago osatuko dute.
 - › Albisteak: Hurrengo egunean egingo duten zerbait? Goazenekoekin oholtzara igoko direla.
- Eguneko hiru tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean twit bat lortu dezakete:
 - › Gosalduraren ondoren hasi eta lehenengo ekintzak irauten duen bitartean.
 - › Bazkalosteko tartean.
 - › Arratsaldeko tarte batean.

Azalpena

- Bost eusleek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute.
- Hezitzaileetako batek ere eusleen moduan jokatu beharko du.
- Tartearen amaiera aldera, bostak bilduko dira hezitzaile horrekin, eta galdera batzuk egingo dizkie.
- Galderen ondoren hezitzaileak askatzen bat edo frogatzen bat aurkeztuko die.
- Hori gaitzen dutenean twita lortuko dute.
- Gaubela 3 twitekin albisteak osatu beharko dute.

Hasiera

- Leku nabarmen batean paper handi bat jarriko dugu, bi zutabe. Albisteak osatuko duten twitak lortuz gero zutabe batean idatziko ditugu. Beste zutabean lagungarriak izan daitezkeen twitak idatziko ditugu, twitak eusleek idatziko dituzte baina besteek ere esan diezaiakete zer idatzi.
- Jaikitzen diren momentutik, ikusi egin behar dute. Oso bistan egon behar du eta twiten bidez azalduko dugu bertan egin beharrekoa.
- Aterpetxean zehar ere kartelak edo girotzeko gauzak jar daitezke.

Istoria

- Hezitzaileek twit bidez emango dute azalpena eta zati bat idatzita egongo da paper handi batean, jaikitzen direnean, bistara. *azalpena twit bidez jasota dago eranskinean.
- Albiste osoa ezagutzeko hiru twitak lortu behar dituzue.
- Twit horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko "twiteroak".
- Baina twiteroen moduan jokatu behar duzue, bestela ez duzue lortuko.
- Twiteroek, hau egiten dute:
 - › Euskaraz egiten dute. Ez dakite gaztelaniaz, ez frantsesez, ez ingelesez. Beti euskaraz egiten dute, baina motz, @ (abildua) eta # (traola) erabiliz.
 - › Esaldi laburrak erabiltzen dituzte, eta beti # hitzarekin hasten dira eta norbaiten izena aipatu nahi badute @ esaten dute aurretik.
 - Adibidez. #egarria. @eneritz pasatuko didazu pitxarra mesedez?
- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
 - › Gosaldu ondorenetik hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
 - › Bazkalostean.
 - › Arratsaldeko tartean.
- Tarte horien amaieran, twitero nagusiak (hezitzaileetako batek), elkartu egingo zaituztete bost twiteroak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita froga bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue twita.
- Dena ondo badoa, iluntzerako jakingo duzue albistea.

Giroze lana

- Eusleek twitero izena jarriko diote beren buruari.
- Paparrean # handi bat eramango dute.
- Hezitzaileok jarrera aktiboa izan behar dugu eta xaxatzen ibili: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte? # eta @ erabiltzen dute?

Eusleen aukeraketa, nortzuk izango dira gaurko twiteroak?

- Gosariko orduan dinamika azalduko diegu eta azalpenak twitter formatuan emango dizkiegu.
- Eusle izateko prest nor dauden galdetuko diegu.
- Bost aukeratu ditugu (eta besteei hurrengo egunetan izateko aukera dutela esango diegu).
- Twitero ez direnek besteak animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzek badute, askoz hobe. Paper handi horretan twit bidez albisteak zein izango den asmatzen lagunduko diete. Twit-ak baina ahoz esan eta twiteroek idatzi beharko dituzte.


Oharra: guztiek izan behar dute eusle izateko aukera, eta beraz, egunez egun eusleak aldatu. Batzuk ez badira inoiz animatzen, egunean zehar beraiekin hitz egin eta hurrengo egunean animatu daitezzen gonbidatu.

Egunean zehar balorazioak eta frogak

- Tarte bakoitzaren amaieran, hezitzaile bat bost eusleekin bilduko da eta galdera batzuk egingo dizkie:
 - › Zer moduz aritu dira? Twit bidez eta euskaraz aritu dira? eta @ hitzekin aritu dira? Denbora guztian euskaraz egin dute?
 - › Garrantzia berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabe nagusia hori dela.
- Ondoren, twitterren artean tarte horretako twit bat edo lehen twitari jarraituko dion zerbait twiteatuko dute. Twitero nagusiari helarazi beharko diote. Twiteroak retwita emango die euskaraz aritu direla ikusten badu eta azken twita balekoa bada, horren ostean twit erantzuna idatziko du paper handian, hurrengo tarterako baliaigarria izango dena.
- Twita paperean idatzi eta:
 - › Hurrengo tarteak noiz izango den gogorarazi.
 - › Rola mantentzera gonbidatu beste tarteetan ere.
- Hirugarren tartearen ondoren, euskara mantentzeari buruz galdetuko zaie batez ere:
 - › Erraz mantendu al dute? Tarteren batean zaila egin zaie? Zailtasunak izan badituzte, hurrengo egunetakoei zer proposatu horiek gainditu ditzaten?
- Gaubelan hiru twitak izango dituztenez, albisteak zein den asmatu beharko dute.

07.

**EUSLE JARDUERA V:
“ITSUA ETA
ITSU-LAGUNA”**



07.

EUSLE JARDUERA V: “ITSUA ETA ITSU-LAGUNA”

Erronka

- Eguneko lau tarte aukeratu dira, eta tarte bakoitzean elkar laguntzeko euskara hutsez aritu beharko dira. Ez dira tarte luzeak izango, gehienez ere ordu erdi ingurukoak.
 - › Gosaltzen.
 - › Denbora libreko tarte bat.
 - › Ekintza batera joateko tartean.
 - › Afaltzen.

Azalpena

- Eguneko 4 momentutan itsua eta itsu neska/mutilaren lekuan jarriko dira 4 bikote.
- Itsu-laguntzaileak itsuari laguntza eskaini beharko dio. Batzuetan oinez laguntzen, jatekoa ematen... Baina nahitaezkoa izango da bien arteko komunikazioa eta konfiantza. Komunikazioa euskara hutsez izan beharko du eta galdera-erantzunen bidez saiaturiko dira elkar ulertzen eta laguntzen.
- Paperak aldatuko dituzte egunean zehar. Eusle bakoitza bi aldiz izango da itsu neska/mutil eta bi aldiz itsu.
- Tarte bakoitzaren aurretik hezitzaileek gogorarazi egingo die erronka hastera doala. Itsu moduan aritu behar duenak begiak estali beharko ditu zapi batekin.
- Tarte bakoitzaren ondoren taldetxoa bilduko da eta hezitzaile baten laguntzaz sentazioez hitz egingo dute: zer moduz itsu moduan? Eta itsu laguntzaile moduan? Sentazioak? Zailtasunak? Zehaztu moduan jokatu dute? (eta hor garrantzia berezia eman euskararen erabilerari, horretarako zailtasunei eta abar).

Istoria

- Hezitzaileek istorio bidez emango dute azalpena.

TORMESKO ITSU-MUTILAREN IPUINA EZAGUTZEN DUZUE? El lazarillo de Tormes esaten da gazteleraz. 1554 inguruan idatzi zen gaztelerazko nobela da. Lazaro Itsua zen erromes bati laguntzen ibili zen nobela hartan. Zirikatzailea zen oso itsu-mutila baina bere nagusia ez zen batere ergela! Batek zirikatu eta besteak agindu, ez zen bikote makala. Gauza bat baina ikasi zuten biek, batak bestearen laguntza behar zuela aurrera egiteko, itsuak ikusten ez zuelako eta itsu-mutilak bere nagusiarengandik jatekoa eta dirua lortu zezakeelako.

Gaur ba binaka arituko zarete. 4 bikote izango zarete gaurko itsu eta itsu-laguntzaileak. Itsuak begiak estalita izango ditu eta itsu-laguntzaileak egin beharrekoetan lagundu egingo dio (bazkaltzeko orduan, norabait joateko orduan...).

Elkarri laguntzea komeni zaizue, tarte bakoitzean paperak aldatuko baitira eta itsu izan dena itsu-laguntzailea izango da ondoren!! Elkar laguntzeko baina ezinbestean bete beharreko kontutxo batzuk badira:

- Aukeratutako tarteetan elkarrekin egon behar duzue.
- Itsuak azkar eta ozen hitz egin behar du.
- Itsu-lagunak mantso eta xuabe.

Ondo pasatzeaz gain, elkar laguntzeaz gain, erronka ondo betetzen baduzue talde osoak sari bat lortuko du!

Nortzuk izango dira eusleak?


- Aurreko eguneko gaubelan galdetuko diegu hurrengo eguneko eusleak nortzuk izango diren eta azalpena emango zaie.
- Eusleei laguntzeko, besteek itsuari eta itsu-lagunari lagundu diezaiekete, baina modu berean jokatzuz.

Egunean balorazioa

- Tarte bakoitzean hezitzaileek itsu eta itsu neska/mutilen bueltan egotea komeni da. Behar bezala ari direla ikusteko eta animoak emateko.
 - › SARIA: Koordinatzaileak bakarrik jakingo du zein den saria. Baina eusleei aurretik begiraleei zuzendutako zerbait izango dela adieraziko zaie, baina ez zaie esango zehazki zer den, gustatuko zaiela esango diegu. Autoebaluazioaren bidez rola nola bete duten baloratuko dute egunaren bukaeran hezitzaileekin. Orik 4ra (0 gutxi eta 4 asko) emaitza bat aterako da. Emaitza horrekin koordinatzaileak esango die zein den eusleek hurrengo egunerako duten saria.

08.

EUSLE JARDUERA VI: “ASLAAK”



08.

EUSLE JARDUERA VI: “ASLAAK”

LETRA BILATZAILEAK

Taldeko bost kide bokal eta letra bilatzaileak izango dira. Horretarako elkarrizketak sortu beharko dituzte beraien kideekin.

Jarduera honetan partaideak eusleak baino berritsuak dira: hainbat elkarrizketa sortu behar dituzte beraien helburua lortzeko.

Jarduera behin baino gehiagotan egin daiteke eta egiteko modu ezberdinak egon daitezke.

A aukera

Kideek erakutsi egingo diete letra. Eusle ez diren kide guztiek bokalak izango dituzte. Euskaraz hitz egiten hasten diren unean lagunak eusleari bere bokala erakutsiko dio: bokalaren arabera letra hori erabiliz bakarrik hitz egin ahal izango du. HARRANGA LAGANARAKAN AASKARAZ HATZ AGAN ARTA (hurrengo lagunarekin euskaraz hitz egin arte). Lagunekin euskaraz hitz egin ahala bokal gehiago lortuko ditu eta azkenerako normal hitz egin ahal izango du. Bokal bat aurkitzen duen bakoitzeko bokal horrekin hitz egingo du, aurretik beste batzuk aurkituta izan arren. Bokal BERRI bat lortzen duenean besoan idatziko dio lagunak eusleari. Egunean zehar errepikatu daiteke, letra bilatzaileak aldatuz, eta guztiek parte hartzea lortuz.

Noiz lortuko du bokala? Hitz bakarra esatearekin ez da nahikoa, elkarrizketan esaldi batzuk behintzat esanda izan beharko dituzte. Bokalekin ari direnean askotan ez zaie ulertuko eta mimikaren bidez eta besteek egiten dituzten galderekin jolastu beharko dute elkar ulertzeko.

- ZE EGENETEN GEEZ HENDERTZERE?
- Zer?
- HENDERTZERE, NEZ?
- Noiz goazen hondartzara?
- BE
- Uztailaren 10ean
- ESKERREKESKE

Jolasa azkar ez amaitzeko, bokalak banatzerakoan kopuruarekin jokatu daiteke. Adibidez: A, E eta I asko, baina O eta U bakarrak.

Bokal BERRI bat lortzen duenean besoan idatziko dio lagunak eusleari eta 5 bokalak lortzen dituenean bukatuko du eta normal hitz egin dezake!

B aukera

Beraiek asmatu behar dute kideek zein letra duten. Bost bokalak lortu behar dituzte. Bokal horiek besteen artean banatu ditugu. Hizketan hasten direnean zuzenean bokal batekin hasi behar dute, adibidez, A. Zar madaz zaada? Besteak bi-hiru esaldi gutxienez horrela jarraituko ditu, eta ondoren, berak A bokala baldin badu, eman egingo dio. Baina ez baldin badu, ez duela esango dio (zein duen esan gabe). Hau da: eusleak elkarrizketa asko sortu beharko ditu bokalekin jokatzuz. A lortzeko hainbat elkarrizketa. Lortu duenean E lortzeko beste hainbat. Eta abar.

C aukera


Kideetako batzuk soilik dituzte letrak. Eusleak normal aritu behar du. Badaki bost bokalak taldeko kideen artean banatuta daudela, baina ez daki nork dituen. Ordubeteko epea izango du bokalak lortzeko. Batzuekin eta besteekin hizketan ari denean, bokala duen norbaitekin ari bada, honek erakutsi egingo dio eta orduan elkarrizketa bokal horrekin jarraituko du. Lortzen badu, besoan bokala idatziko dio. Hizketan normal jarraituko du beste batek beste bokal bat erakusten dion arte. Eta abar.

Materiala

Aukeratzen den aukeraren arabera prestatuko dira bokal kopurua eta azalpena.

09.

**EUSLE JARDUERA VII:
“GAUPASEROAK”**



09.

EUSLE JARDUERA VII: “GAUPASEROAK”

Azken egunean denak eusle izateko jarduera da hurrengo hau. Talde guztiaren esku egongo da eta kasu honetan ez dute rol berezirik izango. Euskara asko erabiltzea komeni zaie, zertarako? Azken eguneko gau belako ordutegia luzatu ahal izateko. Zenbat eta euskara gehiago erabili gaubela luzeagoa.

3 denboratan egingo da neurketa. Bazkal ondoren, arratsaldeko tartetxo batean eta afaldu ondoren. Kartel bat egongo da gaueko orduak apuntatzeko eta hezitzaileak izango dira hau neurtuko dutenak baina haien autoebaluazioa ere kontuan izango dugu. Beraz, erabilera neurketa adostua izango da.

Istoria (ERANSKINEAN)

Errefortzu positiboak emateko une oso egokia izan daiteke

Materiala

Neurketa tarte bakoitzean gehienez zenbat denbora irabazi ahal duten zehaztu beharko da eta horren arabera egingo dugu taula.






9:30/10:00	
10:00/10:30	
10:30/11:00	
11:00/11:30	
11:30/12:00	
12:00/12:30	

Adibidez: bazkal ondoren ordubete irabazi dutela erabaki da. Arratsaldean ordu erdi bat eta afaldu ondoren beste ordu erdi bat.

** Hezitzaileek ordu topea adostuko dute eta horren arabera osatuko da taula. Hau da, gauean gehixeago luzatu daitekeela erabakitzen bada neurketa bakoitzean denbora gehixeago irabazteko aukera izango dute.*

10.

ERANSKINAK



10.1

ERANSKINA I - PIRATEN ALTXORRA

HEZITZAILEENTZAT

GOIZEKO AZALPENA

Hemen daukazue Mundakako altxorra!

Orain dela urte asko ekarri zuten pirata batzuek Pazifikoko irla batetik, baina inork ez du lortu kutxa irekitzea. Herriko biztanleek ez dakite kutxarekin zer egin eta guri ekarri digute. Irekitzen badugu, altxorra guretzat omen da.

Kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue. Zenbaki horiek lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko "piratak" eta hezitzaile bat ere "pirata" izango da.

- Baina garai horretako piraten moduan jokatu behar duzue; bestela, ez duzue lortuko.
- Gure piratek hau egiten dute:
 - › Euskaraz hitz egiten dute. Bizkaieraz. Ez dakite gaztelaniaz, ez frantsesez, ez ingelesez. Beti euskaraz egiten dute, baina bizkaieraz.
 - › Esaldi laburrak erabiltzen dituzte eta bizkaierako hitz hauek tartekatzen dituzte:
 - Zelan? Zeinekin? ...
 - Jata, jatzue, jako, zaoz, nao...
 - Berba, mahaixa, hankia, nagusixa, familixia, gaztia...

Bizkaierako bost berba edo esaldi (hemengoak edo zuek dakizkizuenak) besoan tatuatu eta horiek erabiltzera animatzen zaituztegu!!

- › Ibiltzerakoan, kojoka ibiltzen dira, garai batean izan zuten zauri baten erruz.
- Eguneko hiru tarteetan jokatu behar duzue horrela:
 - › Gosaldu ondoren hasi eta lehenengo jarduera amaitu arte.
 - › Bazkalostean.
 - › Arratsaldeko tartean.
- Tarte horien amaieran, pirata nagusiak (hezitzaileetako batek) elkartu egingo zaituzte bost piratak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita froga bat gainditzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badoa, iluntzerako altxorra lortuko duzue.

NORTZUK IZANGO DIRA PIRATAK?

- Bakoitzari partxe bat eman eta nahi badute pirata zapi bat lortu dezatela!
- Pirata izen bat asmatzeko eskatu.

MATERIALA

Litxarreriaz betetako kutxa, 3 zenbakidun kandadua, 6 partxe eta nahi izanez gero, pirata zapia.

10.1

ERANSKINA I - PIRATEN ALT XORRA

HEZITZAILEENTZAT

1. FROGA

Piraten arteko borroka batean entzun zituztenak jaso ziren Mundakako liburu batean. Pirata haien lekuan jarri, haserre eta oihuka elkarrizketa hau ekarri behar duzue gogora! Bakoitzak esaldi bat (esaldiak prest daude; bakoitzari bat eman).

1. - Nok ostu deu herritarren jana?
2. - Jon Albartzarikoia izen da!
3. - Nik esan neutson ez eitzeko bañe...Nik esan neutson bañe. Ori ez eiñ, gero!
4. - Neuk be hori esan arren Jon Albartzarikuak madarixek bardin bardin ostu ebazan.
5. - Gosia, gosia, ... Hoixe da pobrian pekatua!!! Jatekua bihar neban ta bihar ez zanari kendu.
6. - Ostu dabenari eskua moztu

Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
LEHENENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Kojoka ibili dira?				
Bizkaierazko hitzak erabili dituzte?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

*Bizkaieraz egitearena zailtasun bat bilakatzen bada euskaraz egiteko baldintza hori kendu eta aurrera!

Kandaduaren lehen zenbakia:

10.1

ERANSKINA I - PIRATEN ALTXORRA

HEZITZAILEENTZAT

2. FROGA

Hezitzaile edota koordinatzaileen adin edo bestelako datuak kontuan izanda hurrengo zenbakiaren emaitza lortu behar duzue. Hau da froga matematikoa (hezitzaileek prestatzeko).

Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
LEHENENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Kojoka ibili dira?				
Bizkaierazko hitzak erabili dituzte?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

*Bizkaieraz egitearena zailtasun bat bilakatzen bada euskaraz egiteko baldintza hori kendu eta aurrera!

Kandaduaren bigarren zenbakia:

10.1

ERANSKINA I - PIRATEN ALT XORRA

HEZITZAILEENTZAT

3. FROGA

Atsotitzak/errefrauak osatzeko falta diren hitzak bilatu. Ez dizkiegu hitzak emango; zailtasunak badituzte, lagundu: halangoa, alabea, karakola, barie, uso, etxien.

- Zelangoa baista amea, _____ ohi da _____
- A zelako parie, _____ ta _____
- Kanpoan _____, _____ otso

Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

Kandaduaren hirugarren zenbakia:

10.1

ERANSKINA I - PIRATEN ALTXORRA

PIRATEI BANATZEKO ESALDIAK

1. FROGA

1. froga egiteko elkarrizketa papertxoetan izango dugu, eusle bakoitzak esaldi bat izango du, baita hezitzaile eusleak ere:

1. - Nok ostu deu herritarren jana?

2. - Jon Albartzarikoaren izena da!

3. - Nik esan neutson ez eitzeko bañe...Nik esan neutson bañe. Ori ez eñ, gero!

4. - Neuk be hori esan arren Jon Albartzarikuak madarixek bardin bardin ostu eban.

5. - Gosia, gosia, ... Hoixe da pobrian pekatua!!! Jatekua bihar neban ta bihar ez zanari kendu.

6. - Ostu dabenari eskua moztu!!!!

10.1

ERANSKINA I- PIRATEN ALTXORRA

PIRATEI BANATZEKO ESALDIAK

2. FROGA

Esaldia osatu hutsuneak betez. Hizki zopan daude hitzak. Gogoratu bizkaieraz daudela!!!

- Zelangoa baista amea, _____ ohi da _____
- A zelako parie, _____ ta _____
- Kanpoan _____, _____ otso

BIZKAIERAZ ERREFRAUAK

W	D	J	M	D	G	E	A	T	A
Z	V	Z	Q	T	A	D	G	L	O
Q	B	Q	J	E	L	P	K	S	G
K	S	S	G	W	A	H	U	V	N
I	O	J	Y	F	B	P	X	U	A
F	X	Y	Q	B	E	N	A	K	L
D	P	L	B	V	A	N	J	S	A
W	D	M	B	A	L	J	S	G	H
O	K	H	Z	J	W	A	U	U	N
Z	Ñ	U	F	Ñ	O	O	Z	H	Y
X	B	V	F	N	K	L	A	V	C
O	K	A	R	A	K	O	L	A	G
Ñ	I	G	R	X	O	W	C	Y	D
X	H	N	U	I	E	X	C	T	Y
N	E	I	X	T	E	O	T	A	C

KOKOLIKOKO.COM

10.2 ERANSKINA II – SURFLARI PROFESIONALAK

HEZITZAILEENTZAT

Goizeko azalpena

Euskal Herrian surflari profesional asko daude. Mundu mailan ezagunak direnak (Acero anaiak, Aritz Aranburu, Miriam Imaz, Ariane Otxoa...).

- Badakizue gaur surf egitera joango garela.
- Zuek denok eta hezitzaileok surflari profesionalak izan nahi dugu. Berdin zaigu egia den edo ez. Gaur horrela da. Hori lortu behar dugu. Horretarako zuetako bost eta hezitzaileetako bat surflari profesionalak izango zarete surf ekintza hasi baino ordu bete lehenago eta uretatik irten bitarte. Zuek ongi eginez gero denok izan gaitzke surflari profesionalak.
- Euskal Herriko surflari profesionala izatera iristeko urrats batzuk eman behar dira:
 - › Hitz egiterakoan guayak dira. Beraientzat guay izatea beti euskaraz egitea da baina ingelesezko hitz asko sartuz. Gaztelaniaz ez dute ezer egiten.
 - › Irudi egokia lortu ahal izateko prozesu bat jarraitu dute. Zuek ere prozesu bera jarraituko duzue. Osagarri batzuk emango dizkizuegu eta guztiak jantzita ibili behar duzue. 15 minuturo bat kendu ahal izango duzue, nahi duzuen. (pelukak, betaurreko xebreak, gonak eta abar emango dizkiegu; bakoitzari 6 elementu).
 - › Hitz egiterakoan eskuekin eta besoekin keinu asko egin behar dituzue.
- Dena ondo badoa, surf saioa amaitzerako itxura bikaina izango duzue eta profesionalak izango zarete!

MATERIALA

Pelukak (6), betaurrekoak (6), koilare hawaiarra (6), gona hawaiarra (6), besoetako mailak-tatuajeak (6), pultserak (6). Diplomak (aurretik bakoitzaren izena idatzi).

NORTZUK DIRA SURFLARIAK?

Surf ekintza hasi baino ordubete lehenago banatuko dizuegu materiala. Mozorroal!

10.2

ERANSKINA II - SURFLARI PROFESIONALAK

HEZITZAILEENTZAT

Balorazio fitxa (hezitzaileak betetzeko)

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Ingeleseko hitzak sartu dituzue? Keinuak erabiliz aritu zarete?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				


10.2 ERANSKINA II – SURFLARI PROFESIONALAK

HEZITZAILEENTZAT

Sari banaketa

Surfeko irakasleari emango dizkiogu diplomak, bakoitzaren izena idatziko dugu diploman. Banan-banan eta antzerkia eginez banatuko dizkiegu. Haien rola bete dutela nabarmenduz egingo dugu banaketa eta aipamen berezi bezala banatuko diegu eusle izan direnei. Hala ere, denentzat izango ditugu diplomak.

Surflariei banatzeko diploma. Bakoitzarentzat bat.



10.3

ERANSKINA III – EROSI ETA SALDU

HEZITZAILEENTZAT

Goizeko azalpena

Mundakara pultserak iritsi dira. Bereziak. Lauk izan ezik, beste guztiok izango ditugu. Pultsera honekin ibiltzeak zoriontsu egiten zaitu. Ez dago hori baina gauza hoberik.

- Pultsera ez duzuenok lortu egin nahi duzue, eta erosi dezakezue.
- Guztiok duzue dirua, eta horretarako erabil dezakezue. Bakoitzari billete bat emango dizuegu.
- Baina horretarako erosle aberatsek bezala jokatu behar duzue:
 - › Ezin duzue ordubete pasa baino lehenago erosi.
 - › Tarte horretan jauntxoek hitz egiten duten moduan hitz egin behar duzue: euskara batuan eta hitz ponpoxo edo azentu pijoa erabiliz.
- Ordubete pasatzen denean, nahi duzuenarengana hurbildu zaitezketen eta dirua eskaini:
 - › Pultsera erosiko nizuke.
 - › Zenbat ordainduko didazu?
 - › Daukazun diru guztia eman behar diozu.
 - › Besteak ezin du ezezkoa esan. Hartu egin behar du dirua.
 - › Une horretatik aurrera, bera bihurtzen da erosle.
- ...
 - › Ordu betean ezin du erosketa egin, erosketa egiterakoan diru guztia eman behar du...

OHARRA: hezitzaileek abisatuko dizue ordubeteko tartearen noiz betetzen den eta abisua emateko txilibitu batekin edo egin dezakezue.

10.3 ERANSKINA III - EROSI ETA SALDU

HEZITZAILEENTZAT

Balorazioa

Egunean hiru aldiz balorazio labur bat egitea komeni da, eta talde osoa elkarrekin dagoen tarte batean izan behar du. Adibidez: bazkalordua, arratsaldeko jarduera eta afalordua.

Balorazio fitxak (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
LEHENENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Erosle rola erraz bete duzue?				
Saltzaile rola erraz bete duzue?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
BIGARREN TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Erostaile rola erraz bete duzue?				
Saltzaile rola erraz bete duzue?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

10.3

ERANSKINA III - EROSI ETA SALDU

HEZITZAILEENTZAT

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

10.4 ERANSKINA IV – TWITEROAK

HEZITZAILEENTZAT

Goizeko azalpena

Mobil itxurako paper handi bat egongo da denen bistara jaikitzen direnerako. Eta azalpeneko zatitxo bat twit bidez jasota aurkituko dute.

#aditwiteroak #gureprotagonistak esaldiak euskara hutsez eta motz.

#aditwiteroak #gureprotagonistak esaldiak hasi aurretik traola hitza erabili behar duzue.

#aditwiteroak #gureprotagonistak norbaiti zuzentzerakoan edo norbaiten izena aipatzerakoan aurretik a bildua esan behar duzue.

#aditwiteroak #gureprotagonistak nork izan nahi du twiteroa?

#aditwiteroak #gureprotagonistak zuetako bost eta hezitzaileetako bat izango dira.

Egin beharrekoen azalpen osatua gosaldutik aurreratik aurreratik emango diegu:

#aditwiteroak #gureprotagonistak egunean zehar frogak pasatu eta albiste bat osatu behar duzue. Albistea interesgarria da!

#aditwiteroak #gureprotagonistak baina horretarako benetako twiteroak izan behar duzue.

#aditwiteroak #gureprotagonistak nork izan nahi du twiteroa?

#aditwiteroak #gureprotagonistak albistea osatzeko 3 twit lortu behar dituzue.

#aditwiteroak #gureprotagonistak twita horretarako egokitutako paperean idatziko duzue eta albistea zein izan daitekeen pentsatu behar duzue egunean zehar.

#aditwiteroak #gureprotagonistak besteen laguntza eskatu, albistea izan daitekeena idatzi dezakezue baina soilik twit baten formatuan.

#aditwiteroak #gureprotagonistak azken frogaren gainditzean 3 twit izango dituzue eta albistea zein den gaubelan adieraziko diguzue.

Zeintzuk dira gaurko twiteroak?

Banatu bakoitzari bere mobil eramangarria eta bakoitzak idazteko bere @twiteroizena.

ADI HEZITZAILEOK

- Bigarren frogan abestiak entzuteko zerbait beharko duzue.
- Twitak eta albistea egokiak diren begiratu eta egokitu nahieran.

10.4 ERANSKINA IV - TWITEROAK

HEZITZAILEENTZAT

1. froga

Nortzuk dira argazkiko pertsonaiak? Euskal musikarekin lotura duten 5 emakumeren argazkiak. Lehengo argazkiak bakarrik eman eta ezin badute izenekin lagundu (izenak eman eta ordenatu dezatela).

· Ainhoa Arteta, Miren Narbaiza, Maider Zabalegi, Izaro Andres, Elena Caballero "La Basu".

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
LEHENENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Traola hitzarekin hasi dituzue esaldiak?				
@ erabili duzue izenak aipatzerakoan?				
Esaldi motzak egin dituzue?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

Lehen twita: #uztailak9 #gureprotagonistak elkarrekin gosaltzen eta iluntzerako indarrak hartzen dabiltza. Idatzi paperean!!!

10.4 ERANSKINA IV - TWITEROAK

HEZITZAILEENTZAT

2. froga

- Zein da abesti honetako abeslaria? 5 abesti ipiniko dizkiegu entzuteko eta bakoitzean nork abesten duen asmatu behar dute (aurreko frogakoak dira).

https://www.youtube.com/watch?v=zSVMDt32-YA&index=4&list=PLwAg5862RrJYfrRUirF4Eh9GTA5VA6_Sv **NAPOKA IRIA. Miren Narbaiza**

<https://www.youtube.com/watch?v=ONLNcHOs914> **AINHOA ARTETA**

<https://www.youtube.com/watch?v=6wRdVhiaqvA> **LA BASU**

https://www.youtube.com/watch?v=iW56Vbr_Ssu **MAIDER**

https://www.youtube.com/watch?v=lavNZBWv7xk&list=PL1x_MMtATnfeOPurm6bWWwQK-hKx_AQAg **IZARRO**

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
BIGARREN TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Traola hitzarekin hasi dituzue esaldiak?				
@ erabili duzue izenak aipatzerakoan?				
Esaldi motzak egin dituzue?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

Bigarren twita: #uztailak9 #gureprotagonistak mingaina dantzan dabiltzanak. Idatzi paperean!!!

10.4 ERANSKINA IV - TWITEROAK

HEZITZAILEENTZAT

3. froga

Rap eta twit formatuarekin rap abesti bat inprobisatu. Bakoitzak esalditxo bat adostu eta abestu!!

3. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Zer aldatu beharko genuke hurrengorako?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

Hirugarren twita: #uztailak9 #gureprotagonistak arratsaldeko entsaioa bukatu eta kontzentratzen hasiko dira egun handirako. Nerbioak sumatzen dira MD Udalekuetan.

ZEIN DA ALBISTEA?? #uztailak9 #gureprotagonistak @mingainadantzanudalekuak artista sena agerian utzi dute goazenekoekin batera Mundakako oholtza gainean!!!!

10.4 ERANSKINA IV - TWITEROAK

HEZITZAILEENTZAT

1. froga

Nortzuk dira hurrengo abeslari hauek?



1.



2.



3.



4.



5.

**papera gorde bigarren frogarako!!*

10.5

ERANSKINA V - ITSUA ETA ITSU-LAGUNA

HEZITZAILEENTZAT

Goizeko azalpena

Istoria

- Hezitzaileek istorio bidez emango dute azalpena.

TORMESKO ITSU-MUTILAREN IPUINA EZAGUTZEN DUZUE? El lazarrillo de Tormes esaten da gazteleraz. XVI. mendean idatzi zen gaztelerazko nobela da.

Lazaro itsua zen errones bati laguntzen ibili zen nobela hartan. Zirikatzailea zen oso itsu-mutila baina bere nagusia ez zen batere ergela! Batek zirikatu eta besteak agindu, ez zen bikote makala. Gauza bat baina ikasi zuten biek, batak bestearen laguntza behar zuela aurrera egiteko, itsuak ikusten ez zuelako eta itsu-mutilak bere nagusiarengandik jatekoa eta dirua lortu zezakeelako.

Gaur, beraz, binaka arituko zarete. 4 bikote izango zarete gaurko itsu eta itsu- laguntzaileak. Itsuak begiak estalita izango ditu eta itsu-laguntzaileak egin beharrekoetan lagunduko dio (bazkaltzeko orduan, norabait joateko orduan...).

Elkarri laguntzea komeni zaizue, tarte bakoitzean paperak aldatuko baitira eta itsu izan dena itsu-laguntzailea izango da ondoren!! Elkar laguntzeko baina ezinbestean bete beharreko kontutxo batzuk badira:

- Aukeratutako tarteetan elkarrekin egon behar duzue.
- Itsuak azkar eta ozen hitz egin behar du.
- Itsu-laguntzaileak mantso eta xuabe.

Ondo pasatzeaz gain, elkar laguntzeaz gain, erronka ondo betetzen baduzue hezitzaileak zirikatzeo aukera emango dizuen saria lortuko duzue. Hezitzaileek ez dakite zer den baina egon ziur itsu eta itsu-laguntzaile izateko bidean ongi aritu bazarete hurrengo egunean ongi pasatzeko aukera izango duzuela!! Gau-belan jakingo dugu zertaz ari garen!!!

10.5

ERANSKINA V - ITSUA ETA ITSU-LAGUNA

HEZITZAILEENTZAT

Balorazioa

Bi balorazio momentu izango ditugu. Lehen bi tarteetan ondoren lehengoa. Eta azken bi tarteetan ondoren bigarrena. Bigarren balorazioaren ondoren sarirako baliagarria izango zaien zenbakia eskuratu behar dute.

Balorazio fitxa I (hezitzaileak betetzeko)

	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
LEHENENGO TARTEA				
Gustura aritu dira?				
Itsua ozen eta azkar hitz egin du?				
Itsu-laguntzaileak mantso eta xuabe hitz egin du?				
Elkarri lagundu diozue?				
Dinamikarekin jarraitzeko zerbait aldatu?				
DENBORA GUZTIAN EUSKARAZ EGIN DUTE?				

Balorazio fitxa II (hezitzaileak betetzeko)

2. BALORAZIOA. SAKONTZEN	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Euskara mantentzeko zailtasunik izan duzue? Zertan?				
Anekdotarik?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

10.5

ERANSKINA V- ITSUA ETA ITSU-LAGUNA

HEZITZAILEENTZAT

Zenbatetan erabili duzue euskara?

Hezitzaileek entzundakoa eta haiek aitortzen dutenarekin adostekoa. Puntuatu 1etik 4ra. Markatu aukeratu duzuen eta koordinatzaileari eman honen berri!!

Euskara oso gutxi: 1

Euskara pixka bat: 2

Euskara gehienetan: 3

Dena euskaraz: 4

	Hezitzaileak
1 euskara oso gutxi	
2 euskara pixka bat	
3 euskara gehienetan	
4 euskaraz denbora osoan	

Gaubelan emango du koordinatzaileak honen berri. Errefortzu positiboak emateko aprobeixatu eta emaitza ez bada oso ona izan, animatu saiatzera, ongi egingo dute eta!!!

10.6 ERANSKINA V - AASLAAK

HEZITZAILEENTZAT

Goizeko azalpena

Dinamikaren azalpenetako aukeretako bat hautatuko dugu aurretik eta horren arabera azalpena emango diegu.

Balorazioa

Jarduera behin baino gehiagotan egin daitezke eta egiteko modu ezberdinak egon daitezke.

Aldi bakoitzean jardueraren amaieran eusle izan direnei galdera hauek egingo zaizkie. Ez duzue denak zertan eginik baina elkarrizketak sortzeari eta euskaraz aritzean atalari garrantzia berezia eman. Egunean zehar balorazio asko egin behar baduzue, sinplifikatu eta azkena egin sakonagoa.

AASLAK	A	B	C	
ZEIN AUKERA EGIN DUZUE				
LEHENENGO BALORAZIOA	BAI	EZ	Bai/Ez	Besterik
Gustura aritu dira?				
Elkarrizketa asko sortu behar izan dituzte?				
Eroso sentitu dira?				
Zer izan da zailena?				
Jarduera lagungarria da euskaraz aritzeko?				
Eta motibagarria?				
Besterik?				

10.7 ERANSKINA V - GAUPASEROAK

HEZITZAILEENTZAT

Goizeko azalpena

- Gaupasa egin nahi duzue?
- BAAAIIIIII
- Gaupasa egin nahi duzue?
- BAAAAI

Ba, gaurko honetan gaua zenbat luzatu dezakezuen zuen esku izango da neurri handi batean. Udalekuak iraun duen bitartean ahalegin handia egin duzue euskara erabiltzeko; batzuei beste batzuei baino gehiago kostatzen zaizue baina saiatu zaretela begi-bistakoa izan da!!! Uste dugu bide horretatik jarraitzeko gai zaretela, ahal duzuela eta horretara animatu nahi zaituztegu. Horretarako erronkatxo bat jarri nahi dizuegu:

Euskara asko erabiltzen baduzue ohera joateko ordua luzatuko duzue!!! Denok izango duzue alarma ordua ipintzeko aukera; beraz, zuen esku utziko dugu gaurkoan. Animoooooo!!! Geu ere gaupasero xamarrak garenez zuei laguntzeko prest izango gaituzue gaur ere!!!

Eguneko 3 tarte hartuko ditugu neurtzeko eta tarte bakoitzean erabili duzuen euskara kopuruaren arabera ordutegian markatzen joango gara.

PRESTATU BEHARREKO MATERIALA

Ordutegiak markatzen joateko taula bat. Azalpenean dago adibidea baina zuek neurtu beharko duzue gutxi gorabehera nora heldu daitezkeen eta horren arabera zer bait egin!

BALORAZIOA

Hezitzaileen balorazioa eta haien autoebaluazioa kontuan izanda egingo dugu balorazioa.

